

Erref. kodea: LAF-218-190 [24]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Etxepare, Jean (Jatsukoa): [Mendekoste
gereziak-en kontakizuna]

Eta gero, Jaun: Nende Kostu gerriak?

badute, eta hitzerdi batean ainitz gauza ikusten; barna bilhatzen behako char baten indarra...

Lanho tilinta bat bezala bazabilan, hastean ahapetik, gero betha eta garbikiago, herriko gogo-mihietan.... Nahiz ez ziren sobera fidatzen, gauza horietan zerbait jakitate zutenak, gaizo gizon horrek holako emazte moko biphil baten eskuetan eman zezan bere bizia. Bakotchak bere gogoa bazuen gauza hortaz, eta bakotchak uste zuen harek pentsatu bezala iraganen zirela ondoko egunak.

Eta orai herri guzia beha zagon jaun Erretorrak noiz eginen zuen lehen bazkaria, eta noiz jaun mera gomitatua izanen zitaken.

Jaun Erretorrak zuk eta nik bezain ontsa badazki herriko berriak, herria ttarroa izanik ere. Jadanik errana dautzuet bethi arima onak badirela munduan... Eta hori egia da...

Besta-Berri hurbiltzen ari zen. Eta egun hortan chuchen Erretorrainerat gomit dira jaun Mera eta jaun Achuanta. Eta herritar gaichoak, bereziki zuhaurek badakizuen emazte batzu, lorietan jartzerat zoatzin besta horri buruz. Ainitz gauza esperantcha zuten egun handi hortarik.

Eta egun hura ethorri zelarik bere bidean herriko bi gizonak ez zuten hutsik egin jaun Erretorraren gomitari behar bezala ihardesteko.

Elizan, aldare aintzinerat heltzeko erdiko bidetik iragan zirelarik jaun erretorraren bi aldetan, emazteno batzuek behako zombait eman zituzten, heian Gilen Burugorri nola jauntzia zen, haren begitarteak zer itchura zuen, heian burua gostuan zuen ala zerbait grina agertzerat uzten zuen, eta holako bitchieria frango, zointarik haste zilatuko baitute jaun Meraren gogoren berri.

Eguerditan, Geachinak, jaun Erretorraren gostuaren arabera, bazuen bazkari bat hauta aphailatua. Artetik erraiteko Geachina kalakan bezain trebe zen kozinako edozoin lanetan...

Bazkaria bazoan gochorik hoberenean, herriko hiru buruzagien artean. Hor aiphatzen zituzten sobera kalapitarik gabe herriko behar orduak, miseria gordeak eta erabiltzen undarreko Besta-Berriz geroz zer lan egin zuen kontseiluak. Jaun Erretorrak bere gogoa emaiten zuen hulako edo halako obrarentzat.

AR T Eta bereziki atsegin zuen hautemana zuela kontseilua haren etchearen teilatuaren erreberritzekotan zela. Jaun Merak eta jaun Achuantak hitzeman zioten hala zela, heian lehenbiziko lana izanen zela hori, eta segur bazuela beharra, itachur'andana bat bazitakela...

Nik uste bazkaria bururatu orduko gure gizonak gocho-ki jarriak zitazken bai gorputzez eta bai izpirituz. Segur barnea atchemaiten holako bazkari batek. Bazuten oilachkoa eta aratchekia

eta achurkia. Eta nola aphailatua. Zoin gurdoak. Ahoan urtzen ziren burra bezala. Entselada oilachkoarekin ahotik ezin utzia zen. Jaun horiek ere, herriko handienak izana gatik, ez dute ez egun guzietz bazkari baten egiteko paradarik. Eta arno batzu, churia eta gorria, zer arnoak, jaun Erretorraren mahastiaren uzta chaharra. Perla bezain garbi, gochoak edateko, legunak, erratch aire batekin. Segur ukan zituen komplimentuak kozi-neritsak ere hiru Jaun horien ganik.

Bainan, kotchino, gauza guzietan hiru gizonak bethi elgarren gogo bereko ziren. Politikaz, erlisioneaz, eskolez, laborantchaz, batek bertzearen erranak onhartzen zituzten. Eta gisa hortan batek bertzeak bezain arrazoia handiak botatu behar zituen ez bazuten nahi solasa hiltzerat utzi. Ez da atsegin handirik denak alde direlarik ere...

Gero jaun Erretorra hasi zen pochi bat jaun Meraren kitzikatzen, acheria bezain finki bai. Ageri zuen bai bazuela jakitate eta zuhurtzia. Mintzo zen Gilenez batzuetan... Mintzo zen gero Geachinaz... batzuetan biak nahasten zituela, polliki bai, oneski bai...

Gilenek aithortu zuen.

Jaun Erretorrak nahi izan zuen Gilen bezpera demboran han utzi Geachinarekin, bazuela heietan konfientzia, ez zutela aphez baten etchea zikinduko, eta behar zuela, egiten ahal bazuen, etchekandere on bat bildu. Gilenek ez zuen onhartu, aphezaren laguntza nahi zuela holako gauza baten bururatzeke, gisa den bezala. Jaun Achuantak hitzeman zuen gizon egoitea.

Bezperak ondoan beraz jaun Mera eta jaun apheza Erretorrainerat itzuli ziren.

Eta ez da zure eta ene egitekoa jakitea nola mintzatu ziren jaun Erretorra, Gilen eta Geachina. Gauza horiek ez dira erraiten direnak bertzeri, bakotchak beretako atchikitzen ditu. Bainan jakizazue gauza guziak onheski iragan zirela. Eta norbaitek gogo gaichtoz bururatzen badu ichtorio hau, jakin dezala haren zentzua ez dela luzaz oso egonen.

Dena den egun ederra izan zen igande hura, zeren eta jaun Erretorrak bi arima sainduki elgarri ezagut arazi baitzituen. Gilen eta Geachina elgarrekin ezkondu ziren hiru ilabetheren buruan. Herriko etche guzietarik norbait gomitatua izan zen. Denak lur huntan iragaiten ahal diren bezain ontsa iragan ziren.

Eta jaun Erretorrak bertze gelari bat atchewan zuen.

